

## Zilarra bezain garbi

Etxe Berdeak

Kordoi Etxea

2019ko urriaren 30ean

Doakoa, lekuak bete arte

Orduategia: 17:00etatik 19:00etara



Beren eguneroko erabaki eta ohiturek ingurumenean eta gizartean duten eraginaz kezkatuta dauden familiei zuzendutako heziketa jarduera da, etxearen –eta ondorioz, hiriko ingurumenaren– kudeaketa arduratsuagora aldatzeko prozesuan laguntzeko xedez. Vital Fundazioak antolatzen du programa Ingurugiro Gaietarako Ikastegiarekin batera.

## Informazioa

Jarduera honen bidez, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun gai askotan dagoen toxiko piloari buruzko hausnarketa eragin nahi da. Gainera, aukera ekologikoak eta etxeoak bilatuko dira, ohiko hainbat garbikari ordezkatzeko.

Sukaldean, bainugelan, lurrean, kristaletan erabiltzeko garbikariak egingo dira eta erabilerak askotako aire-freskagarria ere.

Helburuak:

- Egunero erabiltzen ditugun produktuak eta gure etxea garbitzeko balio dezaketenak ezagutu.
- Ohiko garbikarien erabilerak eragiten dituen ingurumen eta osasun kalteak kontuan hartzea.

## Izena emateak

Doako jarduera, izena eman behar da aurretiaz <http://atariconsultores.com/agenda-eventos/> webgunean.